

GIPUZKOAKO FARMAZIA BULEGOETAKO HITZARMENA

2007-2010 URTE BITARTEA

I. ATALBURUA

1. Artikulua. Aplikazio eremua.

Hitzarmen Kolektibo honek Farmazia Bulegoko titularraren eta langileen arteko lan harremanak arautzen ditu eta bulego horietako besteren konturako langile orori aplikatuko zaio, Langileen Estatutuko 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Gipuzkoako probintzia da horren lurralde eremua.

2. Artikulua. Iraunaldia.

Hitzarmena alderdi negoziatzaileen ordezkariak sinatu eta ondoko hilabetean sartuko da indarrean; nolana ere, ondorio ekonomiko guztiak 2007ko urtarrilaren lehenetik aplikatuko dira, 2010eko abenduaren 31 bitartean.

Hitzarmenaren atzeraeraginezko aplikazioagatik sor litezkeen lansari desberdintasunak 2008ko abuztuko nominan ordainduko dira.

3. Artikulua. Konpentsazioa eta xurgapena.

Hitzarmen Kolektibo honetan erabaki diren ordainketa kontzeptu guztiak xurgatu eta konpentsatu daitezke eta urteko zenbateko bakarrean.

4. Artikulua. Baldintza mesedegarriagoak.

Edonola ere, errespetatu egingo dira Hitzarmen Kolektibo honetan ezarritako baldintzak baino mesedegarriagoak diren norberarenak, horiek izaera erabat personalekoak direla ulerturik beti ere.

II. ATALBURUA

5. Artikulua. Kontratazioa.

1. Farmazeutiko arduradunari dagozkion funtzioak betetzeko ezingo da praktika lan kontratu bidez ezin langile kontratatu.

Praktika lanetarako kontratatzen diren farmazeutikoen ordainsaria ezingo da, kontratua indarrean izango den lehen eta bigarren urteetan, Hitzarmen honetako lansari taulan fakultatibo mailarako finkaturiko ordainsariaren %75 edo %90 baino gutxiago izan hurrenez hurren.

2. Merkatuaren egoera, lan pilaketa edo gehiegizko eskaerak direla eta, egin beharreko iraupen mugatuko kontratuak 12 hilabeteko iraunaldikoak izango dira gehienez, 18 hilabeteko epe baten barruan gauzatuak, aurreko arrazoiak gertatuko diren unetik hasita.

3. Alderdiek 15/1998 Errege Lege Dekretuak agindu eta arauturiko Txanda Kontratua, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundurikoa, indartzeko konpromisoa hartzen dute.

6. artikulua. Probaldia.

Langile berrien kontratazioa ez da proba modukoa izango, dagokion idatzizko kontratuan hala jasotzen ez bada. Probaldiaren iraupena ez da ondoko eskalan adierazitakoa baino luzeago izango:

- Fakultatiboa: Hiru hilabete.
- Goi Laguntzaile Diplomaduna, Laguntzaile Diplomaduna, Farmaziako Laguntzaile Teknikoa: Bi hilabete.
- Farmaziako Laguntzailea: Hilabete bat.
- Laguntzailea: Hamabost egun.

Probaldia kontuan hartuko da antzinasunagatiko aldizkako igoeretan, Langileen Estatutuko 14. artikuluko 3. atalean ezarritakoaren arabera. Hitzarmen honetan aurreikusten ez denari dagokionez, Lege horretan agindutakoa aplikatuko da.

7. artikulua. Aurreabisua borondatezko lan uztean.

Hitzarmen honek lotzen dituen eta enpresan hiru hilabete baino gehiago daramaten langileek beren borondatez lana utzi nahi izanez gero, erabaki hori idatziz jakinarazi beharko diote enpresaburuari gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin, eta aurreabisuko epe horretan dagokien lana bete beharko dute.

Aurreabisua jakinarazi ez edo epe horretan lan egiten ez badute, aurreabisuko egunei dagozkien soldaten zenbatekoa likidaziotik deskontatzeko eskubidea izango du enpresaburuak.

III. ATALBURUA

8. artikulua.- Lan mailen sailkapena eta definizioa:

Hitzarmen honek lotzen dituen langileak, beren lanbide jardueren arabera, ondoko talde eta mailatan sailkatzen dira:

1. Taldea

Farmazian Doktore edo Lizentziatua titulua duten fakultatiboak, eta legeak hartarako gaiturik, zerbitzu profesionalak ematen dituztenak. Ondoko mailak sartzen dira:

- a) **Farmazeutiko arduraduna:** Titularraren edo titularkidearen heriotza, erretiroa hartzea, ezintasuna edo absentzia adierazpen judiziala gertatzen denean ofizina bulegoko titularraren edo titularkidearen funtzioak bete eta erantzukizunak bere gain hartzen dituen lizentziaduna da.
- b) **Ordezko farmazeutikoa:** Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 3ko 129/1997 dekretuan farmazia bulegoetako giza baliabideei buruz jasoriko kasuetan, aldi baterako, titularraren edo titularkidearen funtzioak bete eta erantzukizunak bere gain hartzen dituen lizentziaduna da.
- c) **Farmazeutiko laguntzailea:** farmazeutiko titularraren edo titularkidearen, arduradunaren edo ordezkoren gidaritzapean Farmazia Bulegoko lanetan laguntzen duen lizentziaduna da.

2. Taldea:

Ondoko mailetan sailkatzen diren teknikariak:

- a) **Goi Laguntzaile Diplomaduna:** laguntzaile hauek Farmazeutikoen Elkargo Ofizialetako Kontseilu Nagusiak emandako diploma jaso dute, eta gutxienez bi laguntzaile dituzten farmazia bulegoetan, laguntzaile diplomadunari dagokion lana egiteaz gain, beste langileen lana antolatzeaz arduratzen dira teknikari fakultatibo baten gainbegiratupean.
- b) **Laguntzaile Diplomaduna:** farmazia laguntzaile hauek Farmazeutikoen Elkargo Ofizialetako Kontseilu Nagusiak emandako diploma jaso dute, eta laguntzaileari dagozkion lanak egiteaz gain, formula magistralak prestatu eta horiek bezeroei banatzen dizkiete teknikari fakultatibo baten zuzendaritzapean.
- c) **Farmaziako Laguntzaile Teknikoa:** eskudun administrazio agintariek emandako Farmaziako Laguntzaile Teknikoa titulua jaso duten laguntzaileak dira, eta laguntzaileari dagozkion lanak egiteaz gain, formula magistralak prestatu eta horiek bezeroei banatzen dizkiete teknikari fakultatiboaren zuzendaritzapean.

Hitzarmenaren helburuei dagokienez, aurreko maila hori laguntzaile diplomadunarekin homologatzen da.

3. Taldea:

Ondoko mailetan sailkatzen diren farmazia laguntzaileak:

- a) **Farmazia Laguntzailea:** bi urtetan laguntzaile moduan lan egin ondoren, teknikari fakultatibo baten zuzendaritzapean farmazia espezialitateak zerbitzatzeko eginkizun guztiak burutzen ditu eta formula magistralen prestaketan laguntzen du.
- b) **Laguntzailea:** laguntzaileari dagozkion lanetan laguntzen du.

4. Taldea:

- a) **Administrazio burua:** Ahalmen osoz enpresaren administrazio funtzio guztien zuzendaritza edo zaintza bere gain hartzen ditu, funtzio horiek atal desberdinetan antolatu edo banaturik daudela, horretarako gaitua izan edo ez.
- b) **Ataleko burua:** Lana zatitu ahal denean, sortzen diren ataletako baten ardura edo gidaritza du eta aginpide zuzena du bere mendeko langileengan.
- c) **Kontularia:** Aurreko mailetan sartzan ez diren Kontulari eta Kutxazainak sartuko dira honetan.
- d) **Ofizial Administraria:** Beharrezko ezagupen tekniko eta praktikoen jabe izanik, norberaren ekimena eskatzen duten lanak betetzen dituen da, hala nola korrespondentzia idaztea, txostenak kudeatzea edo Gizarte Segurantzaren likidazioak egitea edo antzeko eginkizunen ardura.
- e) **Administrari Laguntzailea:** Administrazio arloko ezagupen orokorren jabe izanik, buru eta ofizialei laguntzen die arlo horri dagozkion lanak gauzaten, hala nola ohiko korrespondentzia idaztea, fakturak prestatzea eta interes eta zergen likidaziorako azterlanak egitea, mekanografia, etab.

9. Artikulua. *Farmaziako Morroi maila ezabatzea.*

Hitzarmen Kolektiboaren helburue dagokienez, Farmazia Bulegoen Lan Ordenantzan biltzen den Farmaziako Morroi maila ezabatzea erabaki dute alderdiek.

IV. ATALBURUA

10. artikulua. *Lanaldia.*

1. 2007, 2008, 2009 eta 2010 urteetan, lan eraginkorreko 1.744, 1.744, 1.741 eta 1.738 ordu beteko dira hurrenez hurren.

Urte horietako abenduaren 31 baino lehen, Gipuzkoako Jaiegunen Egutegi Ofiziala argitaratu eta gero, Farmazia Bulegoko titularraren eskumen eskusiboa izango da astelehenetik larunbatera bitarteko ohiko lanaldi ordutegia zehaztea.

Farmazia Bulegoko titularrak ordutegia zehaztu ondoren, urteko lanaldian aldaketak gertatuz gero, titular horrek beharrezkoak diren egokitzeak egingo ditu hamabost eguneko epean.

2. Ohiko asteko lanaldia 40 ordukoa izango da; nolana ere, beste lanaldi batzuk eratu ahal izango dira, urteko gehienezko ordu kopurua errespetatuz beti ere.

3. Asteko lanaldiaren eta urteko ordu kopuruaren artean alderik balego, soberako ordu horiek jarraian eta langileak eta farmazia bulegoko titularrak hitzarturiko moduan hartuko dira. Jai ordu horiek arauzko oportzat joko dira, farmazia bulegoetako giza baliabideei buruzko ekainaren 3ko 129/97 Dekretuko II. atalburuan aipatzen diren farmaziako laguntzaileen eta laguntzaileen kasuan.

11. Artikulua. Larrialdi erregimenean eta derrigorrezko txandetan eskaini beharreko arreta zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 29ko 188/97 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

1.- Kontuan izanik farmazia bulegoak legez derrigorturik daudela larrialdi erregimenean eta derrigorrezko txandetan farmazia arreta zerbitzuak eskaintzera, farmazeutikoak ahalmena du zerbitzu horretan langileek farmazia bulegoan jarraian edo zatika bete beharreko lanaldia eta ordutegiak antolatzeko.

Halako kasuetan, langilea aparteko orduak egitera behartua egongo da, Langileen Estatutuan ezarritako mugak errespetatuz beti ere.

2.- egin diren aparteko orduak egiturako ordutzat hartuko dira, eta horiek dagozkien errekarquez ordaindu ahal izango dira, edo ordainduriko atsedeen denbora baliokidez konpentsatu.

Aparteko orduak jaiegunean lan eginez gero, atsedeen orduz konpentsatuko dira, eta atsedeen ordu horiek lanegunean hartuz gero, konpentsazioa %150ekoa izango da (hau da, lanegunean ordu bat eta erdiko jaia, jaiegunean lan egindako aparteko ordu bakoitzeko).

Farmazia bulegoko titularrak bi aukera izango ditu: aparteko orduak ordaintzea edo atsedenaldirik konpentsatzea.

Atsedeen egunak edo atsedenaldirik langilearen eta farmazia bulegoko titularraren artean finkatuko dira.

3º.- Jaiegunean farmazia bulegoko langileek larrialdi erregimenean eta derrigorrezko txandetan eskainiriko farmazia arreta zerbitzuko lanorduak, aparteko orduen sailekoak ez badira ere, atsedeen orduz konpentsatuko dira, aurreko atalean aparteko orduetarako finkatu den moduan.

4º.- Urteko lansaria 1.744 orduz zatitzean ateratzen den zatidura izango da aparteko ordua kalkulatzeko modulua 2007 eta 2008 urteetan; 1.741 orduz zatitzean ateratzen dena 2009 urtean eta 1.738 orduz zatitzean ateratzen dena 2010 urtean.

Aparteko orduak ondoko errekarquekin ordainduko dira:

- Eguneakoak: Ordu arruntaren %75.
- Jaieguneakoak: Ordu arruntaren %140.
- Gauekoak: Ordu arruntaren %100.

Goizeko 9etatik gaueko 10ak bitarteko orduak eguneko ordutzat joko dira, eta gaueko 10etatik hurrengo goizeko 9ak bitartekoak izango dira gaueko orduak.

5º.- Hala eta guztiz ere, baserri aldeetako edo ezaugarri bereziko inguruetako farmazia bulegoetan, larrialdi erregimenean eta derrigorrezko txandetan eskainiriko arreta zerbitzuko lanorduak ordaintzeko beste era batzuk hitzartu ditzakete enpresaburuek eta langileek lantoki bakoitzean.

6º.- Langileak farmazia bulegoan bertan egonik, gaueko 10etatik ondoko eguneko goizeko 9ak arte emandako denbora hartuko da larrialdi zerbitzutzat. Ordu horien ordainsaria bi alderdien artean hitzartu ahal izango da lantoki bakoitzean. Gaueko larrialdi zerbitzuan egindako orduak ordaintzeko gutxieneko zenbatekoa ondokoa da: **98,16€** laguntzailearentzat eta **115,12€** fakultatiboarentzat. Zenbateko horiek urtez urte gehituko dira KPIaren arabera.

V. ATALBURUA

12. Artikulua. Hitzarmeneko lansariak eta lansari errealak.

1. 2007ko urtarrilaren lehenetik urte bereko abenduaren 31 arte, Hitzarmen honetara loturiko langileen lansari taulak hitzarmen honetako eranskinean mailaz maila ezarritakoak dira. Lansari horiek finkatzeko 2006ko abenduaren 31n indarrean zeudenei urte horretako Kontsumoko Prezioen Indizea gehi puntu bat aplikatu zaie.

2006 urtean zehar langileek jaso dituzten lansari errealak 2007ko urtarrilaren 1ean berrikusiko dira eta 2006 urteko Kontsumoko Prezioen Indizeak izan duen aldaketaren ehunekoaz gehituko dira.

2. Gaueko lanaren ordainsaria eguneko lanerako ezarritako bera izango da, horien izaera eta maiztasuna kontuan izanik beti ere.

Gaueko 10ak eta hurrengo goizeko 9ak bitarte egin ohi diren orduak hartuko dira gaueko lan ordutzat.

13. Artikulua. Lansari berrikuspenak.

Hitzarmen honetan hitzarturiko lansari taulak 2008ko urtarrilaren 1ean berrikusiko dira eta 2007 urteko Kontsumoko Prezioen Indizeak izan duen aldaketaren ehuneko gehi puntu bat emendatuko zaizkie. 2009ko urtarrilaren 1ean ostera berrikusiko dira eta 2008 urteko Kontsumoko Prezioen Indizeak izan duen aldaketaren ehuneko gehi puntu bat emendatuko zaizkie.

Lansari errealak, data horretan bertan berrikusiko dira, eta aurreko urteko Kontsumoko Prezioen Indizeak izan duen aldaketaren ehuneko gehituko zaie.

14. Artikulua. Aparteko pagak.

Hitzarmen kolektibo honetara loturiko langileek hiru aparteko paga izango dituzte hilabete baino gehiagoko epemugarekin. Aparteko paga horiek hileko oinarrizko lansari gisa ezarritakoaren zenbateko berekoak izango dira eta gainera antzinasunaren ordezeko osagarri pertsonala gehituko zaie (antzinasun finkatua, edo antzinasun gabeziagatiko plusa). Hona paga horiei dagozkien mugaegunak:

- a) Abenduaren 22a.
- b) Ekainaren 24a.
- c) Martxoaren 30a, aurreko ekitaldiari dagozkion mozkinetako partaidetza gisa.

15. Artikulua. Antzinasun finkatua edo antzinasun gabeziagatiko plusa.

1. Gipuzkoako farmazia bulegoetako aurreko estatutuz kanpoko hitzarmen kolektiboaren (2003-2006 urte bitartea) 13. artikulua aplikatuz, antzinasunaren ordezeko osagarri pertsonala kontzeptuaz lansari ordainketak eta gainerako gehigarri osagarriak (nominan edozein izenpean agertzen direla) jaso dituzten langileei dagokionez, kontzeptu horiek batu egingo dira, jadanik batu ez badira, “*Antzinasun finkatua*” izenpean. Zenbateko horri hitzarmeneko lansari taulek jasoko dituzten urteko gehikuntza berak aplikatuko zaizkio.

2. Goian aipaturiko hitzarmenaren 13. artikulua aplikagarri izan ez duten langileek, eta ondorioz antzinasunaren ordezeko osagarri pertsonal eta gehigarri osagarri moduan inolako diru kopururik jaso ez dutenek, osagarri pertsonal bat jasotzeko eskubidea izango dute, “*Antzinasun gabeziagatiko plusa*” izenekoa.

Plus hori %3ko bi biurtekok osatuko dute; horiek une bakoitzean indarrean izango den lansari taularen arabera kalkulatu dira eta 2007ko urtarrilaren lehenetik hasita bi eta lau urtera gauzatu dira hurrenez hurren, enpresan data horren ondoren lanean hasi diren langileen kasuan izan ezik, horien biurtekoak hasiera egunetik kontatuko baitira.

Bi biurtekoak gauzaturik, dagokion zenbatekoa nominan agertuko da “*Antzinasun gabeziagatiko plusa*” izenarekin eta hitzarmeneko lansari taulen urteko gehikuntza berak aplikatuko zaizkio.

16. Artikulua. Laguntzaile diplomadun mailako antzinasuna.

Maila honetako 18 eta 36 urteko antzinasuna duten laguntzaile diplomadunek dagokien mailan finkaturiko lansariak jasoko dituzte, %5 eta %10eko gehikuntzarekin hurrenez hurren.

17. Artikulua. Lanerako ezintasun iragankorreko osagarria.

Lan istripuak edo gaixotasun profesionalak sorturiko ezintasun iragankorrari dagokionez, hitzarmen honetara lotzen diren langileek soldata osoa jasotzeko eskubidea izango dute egoera horretan dauden bitartean, gehienez 12 hilabeteko epea bete arte (epe horretan Gizarte Segurantzaren dirulaguntza deskontatuko zaie), halako egoeran dagoena beste langileren batek ordezkatu ez badu.

Hala gertatuz gero, langileak berari dagokion lansariaren eta ordezkariari dagokionaren arteko aldea hartuko du, alderik balego, gizarte segurantzak emandako dirulaguntza jasoko duen aldian.

Lanez kanpoko istripuak edo gaixotasun arruntak sorturiko ezintasun iragankorrari dagokionez, hitzarmen honetara lotzen diren langileek Gizarte Segurantzaren dirulaguntza hitzarmeneko lansariraino osatzeko eta, dagokien kasuan, antzinasun finkatuaren osagarri pertsonala edo antzinasun gabeziagatiko plusa jasotzeko eskubidea izango dute egoera horretan dauden bitartean, gehienez 12 hilabeteko epea bete arte (Gizarte Segurantzaren laguntza deskontatuko zaie).

VII. ATALBURUA

18. Artikulua. Oporrak.

Opor moduan emandako ordainsaria 30 egun naturalekoa izango da, eta oporrak soil-soilik eta nahitaez 26 lanegunetan hartu beharko dira. Oporren helburuei dagokienez, larunbata lanegun osotzat hartuko da.

Langileak, berari egotz ez dakioken arazoiren batengatik, urteko oporrak ekaina eta iraila bitarteko hilabeteetan hartu ezinean gertatuz gero, oporraldia lau lanegun naturaletan gehitzeko eskubidea izango du. Lantoki bakoitzean enpresaburuak eta egoera horretan dauden langileek lau egun horiek zein modutan eta baldintzatan gehituko dituzten hitzartuko dute.

Abenduaren 24 eta 31 egunen familiarteko izaera dela eta, egun horietako arratsaldeak jaieguntzat hartuko dira helburu guztietarako.

19. Artikulua. Ordainduriko baimenak.

Langileek, alde zuzen jakinarazi eta justifikatuz gero, ordainduriko baimenak hartzeko eskubidea izango dute. Baimen horiek artikulu honetan adierazitakoaren arabera baliatu eta ordainduko dira.

Orobat, baldintza berberetan, zehaztuko diren ordaindu gabeko baimenak baliatu ahal izango dituzte langileek.

Kausa eragilea gertatzen den unean baliatu beharko dira baimen guztiak.

Enpresek ondoren azaltzen diren kasuetan emango dituzte baimenak, kasu horiek justifikatuta egonez gero. Ordaintzerakoan baimen guztiak lansari errealaren baliokideak izango dira.

- a) Langilearen ezkontza: 18 egun naturaleko baimen ordaindua.
- b) Emazteak erditzea: 3 egun, horietatik bi gutxienez lanegunak izango dira. Zesarea bidez erditzen denean, ordainduriko beste hiru egunez luzatu ahal izango da baimena.

c) Gaixotasun larria:

1. Ezkontiderena edo langilearekin bizi diren seme-alabena edo gurasoena: ordainduriko 3 egun natural. Beste 3 egun gehiago luzatu ahal izango da, baina horiek ez dira ordainduko.
2. Gurasoena edo anai-arrebena: ordainduriko 2 egun natural. Beste egun bat gehiago luzatu ahal izango da, baina ez da ordainduko.
3. Iloba, aiton-amona, aitagarreba, amagarreba, koinatu-koinata edo ezkontidearen seme-alabena: ordainduriko egun bat.

Baimena eragin duen gertaerak –gaixotasun larriak– dirauen bitartean langileak, enpresarekin adosturik, aukera izango du baimena noiz hartu erabakitzeko. Akordiorik ez balego, baimen egunak ondoz ondokoak izango dira.

Gaixotasun larriak irauten badu, ordaindu gabeko bigarren baimena hartzeko eskubidea izango du baldintza berdinetan eta denbora berdinerako, aurreko baimenetik ondoz ondoko hogeita hamar egun igaroak izanez gero beti ere. Halako kasuetan ezin izango da aplikatu joan-etorriei legokiekeen luzapenik.

Atal honen helburuei dagokienez, gaixotasun larria dagokion medikuak halakotzan jotzen duena izango da, dela hasierako egiaztapenean dela alderen batek gerora hala eskaturik. Zalantzarik balego, Batzorde Misto Interpretatzaileak erabakiko du, baterako irizpide orientatzaile hauek kontuan hartuz: ospitaleratu beharra eta bertan eman beharreko denbora, halako garrantzia duen interbentzio kirurgikoa, laguntzailearen premia, eta abar.

d) Heriotza:

1. Ezkontide edo seme-alabena: ordainduriko 5 egun natural.
2. Guraso edo anai-arrebena: ordainduriko 2 egun natural.
3. Biloba, aiton-amona, aitagarreba, amagarreba, koinatu-koinata edo ezkontidearen seme-alabena: Ordainduriko egun natural bat.

Ezkontidearen, seme-alaben, gurasoen edo anai-arreben heriotzagatik baimena ezin xurgatuko da, langilearen oporretan edo ezkontzagatik baimen egunetan gertatuz gero.

Aitagarrebari eta amagarrebari dagokienez, b), c.1), c.2), d.1), d.2) eta d.3) kasuetan, egin beharreko bidaia 200 eta 500 km bitartekoa izanez gero, baimen egun natural batez luzatuko da; bidaia hori 500 km-tik gorakoa izanez gero, bi egun naturalez luzatuko da.

e) Gurasoen, anai-arreben edo seme-alaben ezkontza: ordainduriko egun natural bat.

f) Ohiko etxebizitza aldatzea: ordainduriko egun natural bat.

g) Langileak gizarte segurantzako mediku espezialisten kontsultara joan beharreko kasuetan, beharrezkoa izango duen denbora hartu ahal izango du, kontsulta eta laneko ordutegiak batera gertaturik, kontsulta hori medikuntza orokorreko fakultatiboak preskribatuko duenean. Nolanahi ere, aldeztu aurretik langileak medikuaren preskripzio horretarako agiria aurkeztu beharko dio enpresaburuari.

h) Emakumezko langileek edoskitzaroan (9 hilabete arte) ordubeteko geldialdia egiteko eskubidea izango dute. Ordu hori bi zatitan banatu dezakete, edo, nahi izanez gero, beren lanaldi arrunta ordubetez murriztu ahal izango dute, helburu berarekin betiere.

Modu berean, eskubide hori beste era batean baliatu ahal izango dute: amatasun baxa amaitu bezain laster, dagozkien ordu guztiak pilatu eta ordu horiek egun osoetan erabili.

Bizikidetzaren iraunkortasunari dagokionez, ezkontidearekin izan ohi denaren antzeko afektibitate harremana izanik, sexu joera edozein delarik ere, artikuluko honetako a), b), c), d) eta e) ataletan zehaztu diren eskubide berak sortuko ditu bizikidetzaren horrek, baina c), d) eta e) ataletan soilki bizikideari eta bizikide bakoitzaren seme-alabei eta gurasoei aplikatuko zaie, nolatan ere baimen hori ez da baliozkoa izango beste bizikidearen anaia-arreben, iloben eta aitona-amonen kasuan. Edozein modutara, bizikidetzaren behar adina egiaztatu beharko da (baimena eskatu aurreko 2 urteetan, gutxienez, elkarrekin bizi direla ziurtatzen duen errolda agiria)

Artikulu honetako baimenak, oro har, Langileen Estatutuak eta izaera orokorreko xedapenak emandakoak hobetzen dituzte, eta horren ondorioz, beren osotasunean kontuan hartu beharrekoak dira, nahiz eta kasu zehatzen batean baimen horiek murrizturik gera daitezkeen.

20. Artikulua. Ordaindu gabeko baimenak.

Edozein langilek hartu ahal izango ditu ordaindu gabeko lau lanegun edo zortzi egun erdi, arazo edo kontu pertsonalak konpontzeko.

VIII. ATALBURUA

21. Artikulua. Zigorrak.

Langilea lanean ez egonik, ezin zaio inolako lan zigorrik inposatu ez-egote hori atxilotze, prebentziozko espetxeratze edo auzipetzeagatik gertatu bada, ezta arrazoi sindikal edo politikoengatik ere.

22. Artikulua. Hutsegiteak eta zigorrak.

1. Langileak egindako hutsegiteek kontratua ez betetzea badakarte, enpresako zuzendaritzak hutsegite horiek zigortu ahal izango ditu artikulu honetan zehazturiko mailaketaren arabera.

1.Langileek egindako hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

2.Hutsegiteren bat gertatzen denean, horren maila edozein delarik ere, enpresak idatziz eta arrazoiak azalduz ohartarazi beharko du langilea

Hutsegite arintzat hartuko dira:

a) Justifikaziorik gabeko puntualtasun eza lanera sartu edo lanetik ateratzerakoan, hilabetean gehienez hiru alditan gertatzen denean eta guztira hogeit hamar minututik beherakoa denean.

b) Hilabeteko aldiaren barruan egun batez lanera ez agertzea inolako justifikaziorik gabe.

c) Arrazoi justifikatua delarik, lanera ez joatea alde aurretik behar bezala ez jakinaraztea, horren ezinezkotasuna frogatu ezean.

d) Lanpostua arrazoi justifikaturik gabe uztea aldi laburretan, baldin eta horrela jokatzeko pertsonen eta gauzen osotasuna arriskuan jartzen ez bada; hala izatera, larri edo oso larritzat jo daiteke hutsegitea, larritasunaren arabera.

e) Jendeari jaramonik ez egitea edo jendetasunik gabeko tratua izatea, baldin eta horrela jokaturik enpresaren irudia larriki kaltetzen ez bada.

f) Nork bere ardurapean edo bere gain daukan materiala axolagabeki kontserbatzearen ondorioz kalte arinak eragitea.

g) Lanean mozkortzea, ohikoa ez denean.

Hutsegite larritzat hartuko dira:

a) Justifikaziorik gabeko puntualtasun eza lanera sartu edo lanetik ateratzerakoan, hilabetean gehienez hiru alditan gertatzen denean eta guztira hirurogei minututik beherakoa denean.

b) Hilabeteko aldiaren barruan bi eta lau egun bitartean lanera ez agertzea inolako justifikaziorik gabe.

c) Gizarte Segurantzaren eragina izango luketen datuak oztopatzea, nahita ezkutitzea edota gezurrezko datuak ematea.

d) Gaixotasuna edo istripua simulatzea; 3. zenbakiko d) letran aurreikusitakoa kontuan harturik beti ere.

e) Beste langile baten lekua hartzea, laneko sarrera eta irteeren erregistro eta kontrolak faltsutuz.

f) Laneko agindu eta jarraibideak, segurtasun eta higienerari buruzko arauak barne, ez betetzea, baita lanean zuhurtzia eta axola gabe jokatzeko, salbu eta horrela aritzeak enpresari kalte larriak ekarri, instalazio eta makinerian matxurak eta, oro har, enpresaren ondasunetan kalteak eragin dituen edota jendea arriskuan jartzen duenean, halako kasuetan hutsegiteak oso larritzat hartuko bailirateke.

g) Langilearen ardurapean dauden tresna, lanabes, ibilgailu eta obretan antzemandako kalte edo akatsak enpresari ez jakinaraztea, horien ondorioz enpresari kalte larriak eragiten bazaizkio.

h) Lanaldian lan partikularrak egitea hartarako baimenik izan gabe, baita, enpresaren tresna, lanabes, makina, ibilgailu eta, oro har, ondasunak erabiltzea baimenik gabe edo aginduriko lanarekin zerikusirik ez duena egiteko, lanaldiz kanpo bada ere.

i) Derrigorrez isilpean gorde beharreko sekretuak haustea edo ez gordetzea, horrela jokatzeko enpresari kalte larriak eragiten ez dionean.

j) Ohiko mozkortasuna lanaldian.

k) Lanean garbitasun eta txukuntasun pertsonala ez izatea, horrek produkzio prozesuan edo zerbitzua eskaintzean kaltea eragin dezakeenean, baldin eta aldezturik enpresari kalte larriak eragiten ez bada.

l) Aginduriko lanak behar bezala ez betetzea, baldin eta horrela jokatzeko pertsonengan eta gauzetan kalte larriak eragiten ez bada.

m) Ohiko lan errendimendua gutxitzea, baldin eta behin eta berriro gertatzen ez bada.

n) Lantokian bertan jendea htezez eta egitez modu bereziki larrian iraintzea.

o) Bost hutsegite arin egitea, edozein eratakoak direla, baldin eta hiruhilekoaren barruan hitzezko kargu hartzeaz bestelako zigorrik egon bada.

Hutsegite oso larritzat hartuko dira:

a) Justifikaziorik gabeko puntualtasun eza lanera sartu edo lanetik irtetzerakoan, sei hilabetean hamar aldiz edo urtebetean hogeitun aldiz gertatzen denean, horretaz behar bezala ohartarazi bada.

b) Lanera justifikaziorik gabe huts egitea ondoz ondoko hiru egunetan edo aldizkako bost egunetan hilabeteko epean.

c) Iruzurra, leialtasun eza jokatzeko edo uste onaren iruzurra aginduriko gestioetan edo enpresaren jabetzako ondasunak, lankideenak edota beste edozeinenak bereganatzea, lapurtzea edo ostea enpresaren lokaletan.

- d) Gaixotasuna edo istripua simulatzea edo gaixotasun edo istripu bajak luzatzea, bere kontura edo inoren kontura edozein motatako lanak egitearren.
- e) Derrigorrez isilpean gorde beharreko sekretuak haustea edo ez gordetzea, horrela jokatzek enpresari kalte larria eragiten dionean.
- f) Ohiko mozkortasuna edo toxikomania, lanean eragin kaltegarriak izanez gero.
- g) Enpresari bidegabeko lehia dakarten jarduerak gauzatzea.
- h) Ohiko edo adosturiko lanaren errendimendua nahita eta modu jarraian gutxitzea.
- i) Greba aldietan mantenimendu zerbitzuak ez betetzea.
- j) Aginte eginkizunak betetzen dituztenek gehiegikeriaz jokatzeko.
- k) Sexu erasoak.
- l) Behar bezala ohartarazirik, segurtasun eta higiene arloko babes tresnak erabiltzeari uko egitea behin eta berriz.
- m) Artikulu honetako 1.d) eta 2.l) eta n) ataletatik etor litezkeenak.
- n) Hutsegite larriak behin eta berriz egitea. Halako egoeran izango da azken egintzaren unea baino lehen, urtebeteko epean, bitan edo gehiagotan edozein motatako hutsegite larriak egiteagatik zigortua gertatu den langilea.

Aurreko artikuluan zerrendaturiko hutsegiteen ondorioz jarri ahal izango diren gehienezko zigorrak:

- a) Hutsegite arinengatik: hitzezko edo idatzizko kargu hartzea eta gehienez bi egun lanik eta soldatarik gabe uztea.
- b) Hutsegite larriengatik Lanik eta soldatarik gabe uztea hiru egunetik eta hamalau bitartera.
- c) Hutsegite oso larriengatik: Lanik eta soldatarik gabe uztea hamalau egunetik hilabete bitartera, beste herriren bateko lantokira bidaltzea urtebeteko aldirako gehienez eta diziplinako kaleratzea.

Ezarririk zehapenen ondorioz, espediente pertsonaletan jasota ageri litezkeen kontrako oharrik baliogabetu egingo dira bi, lau edo zortzi hilabeteko epeak igarotakoan, hutsegiteen arabera: arina, larria edo oso larria hurrenez hurren.

IX. ATALBURUA

23. Artikulua. Sariak.

Jaiotza eta ezkontzogatiko sariak **86€** eta **122€**-koak dira hurrenez hurren.

24. Artikulua. Aseguruak.

Farmazia bulegoek erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuko dute, farmaziako langile eta laguntzaile guztientzat, **99.084€** arteko erantzukizuna bermatuko duena.

Farmazia bulegoek kontratu mugagabea duten beren langile guztientzat **19.871 euroko** lanbide aseguru poliza bat izenpetzeko betebeharra dute lan istripu edo lanbide gaixotasunek eragindako heriotz edo ezintasun iraunkor oso, absolutu eta baliaezintasun handiko kasuetan; eta **3.303 eurokoa**, lanez kanpoko istripu edo gaixotasunetik arruntek eragindako heriotz edo ezintasun iraunkor oso, absolutu eta baliaezintasun handiko kasuetan.

25. Artikulua. Laneko arropa.

Farmazia bulegoko langile bakoitzari bi mantal eta eskalpoi pare bat emango zaio urtean enpresaren kontura.

Urte amaieran arropa hori ez emanaz gero, enpresak langileari **25€** ordaindu beharko dizkio jaso ez duen mantal bakoitzeko, eta **40€** jaso ez dituen eskalpoiengatik.

26. Artikulua. Kitatzea.

Langileek sinatu baino 48 ordu lehenago kizatze ordainagiriaren kopia eskatu ahal izango dute, nahi duten erabilerarako.

XI. ATALBURUA

27. Artikulua. Amaiera.

Hitzarmen hau automatikoki indargabetuko da 2010eko urriaren 31n. Hitzarmen kolektibo honetako arauak eta lansari taula ez dira indargabetuko edo aldatuko estatu mailako hitzarmen kolektiboren bat argitaratu eta onetsi arren.

28. artikulua. Batzorde mistoa

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, Batzorde Mistoa eratuko da, alde negoziatzaile bakoitzeko lau kidez osatua, eta horren helburua farmazia bulegoetako langileen lanbide hobekuntzarako ikastaroak antolatzea izango da; nolana ere, ikastaro horiek lanorduetatik kanpo gauzatuko dira.

29. artikulua. Batzorde interpretatzailea

Hitzarmen kolektibo honen interpretazio, azterketa, arbitraje, adiskidetze, zaintza eta fiskalizatorako, are bakarkako egoeren salaketa eskumena duten erakunde publikoen aurrean egiteko ahalmena duela, indarrean dagoen legeriaren arabera, jarraipen eta kontroleko batzorde bat eratuko da batzorde parekide gisa, bilkura bakoitzean AGEOFAREko bi kide ordezkariak eta langileen beste bi ordezkariak osatua, hau da, lau kide guztira, beren artean, lehendakari bat eta idazkari bat hautatuko dituztenak eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dituztenak. Indarreko legeriak Batzorde horren eskumenean ezarritako funtzioez gain, ondoko ahalmenak izango ditu: egokitzen hartuko dituen azterlan eta ekimenak proposatzea hitzarmen hau sinatzen duten aldeei, farmazia bulegoetako enpresa eta langileen aurrerabide eta gizarte planari begira. Donostiako Prim kalea, 2-1a izango da Batzordearen helbidea.

30. artikulua. Hitzartutakoari lotzea.

Hitzarmen honetako erabakiek osotasun bakarra eta zatiezina moldatzen dute, guztira eta urte kopuruan, eta, ondorioz, ezin izango dira banandurik kontuan hartu.

Hitzartutako baldintzen batasun eta zatiezinezko printzipioa ezarririk, Lan Agintaritzak edo Agintaritza Judizialak, berezko dituzten ahalmenak betez, hitzarmen honetako akordioaren bat onetsiko ez balute, hitzarmena eraginkortasun praktikorik gabe geratuko litzateke, eta horren edukia oso-osorik aztertu beharko da berriro.

Xedapen gehigarria.

Hitzarmena izenpetzen duten bi alderdiek hitzarmenaren lurralde eremua eta Euskadik hartzen duena bat bera izan dadin borondatea adierazten dute.

FARMAZIA BULEGOETAKO HITZARMENA

2007ko lansari taula

Maila	Hilabeteko lansaria eurotan	Urteko lansaria eurotan
Fakultatiboa (arduraduna, ordezkoa edo laguntzailea)	1.681,53	25.222,95
Goi Laguntzaile Diplomaduna	1.292,85	19.392,75
Laguntzaile Diplomaduna	1.167,44	17.511,60
Farmaziako Laguntzaile Teknikoa	1.167,44	17.511,60
Farmazia Laguntzailea	1.073,97	16.109,55
Laguntzailea	980,50	14.707,50
Administrazio burua	1.292,85	19.392,75
Ataleko burua	1.167,44	17.511,60
Kontularia	1.119,57	16.793,55
Administrari Laguntzailea	980,50	14.707,50
Garbiketako langileak	787,84	11.817,60

Gaueko Larrialdi Zerbitzua

* Fakultatiboa 115,12€
* Gainerako mailak 98,16€
(Gaueko 10etatik goizeko 9ak bitarte)

Taularen indarraldia: 2007ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31 arte

FARMAZIA BULEGOETAKO HITZARMENA

2008ko lansari taula

Maila	Hilabeteko lansaria eurotan	Urteko lansaria eurotan
Fakultatiboa (arduraduna, ordezkoa edo laguntzailea)	1.768,97	26.534,55
Goi Laguntzaile Diplomaduna	1.360,08	20.401,20
Laguntzaile Diplomaduna	1.228,15	18.422,25
Farmaziako Laguntzaile Teknikoa	1.228,15	18.422,25
Farmazia Laguntzailea	1.129,82	16.947,30
Laguntzailea	1.031,49	15.472,35
Administrazio burua	1.360,08	20.401,20
Ataleko burua	1.228,15	18.422,25
Kontularia	1.177,79	17.666,85
Administrari Laguntzailea	1.031,49	15.472,35
Garbiketako langileak	828,81	12.432,15

Gaueko Larrialdi Zerbitzua

- * Fakultatiboa 119,96€
- * Gainerako mailak 102,28,16€
(Gaueko 10etatik goizeko 9ak bitarte)

Taularen indarraldia: 2008ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31 arte